

LOGIKAREN ZIENTZIA, HEGEL

Landu dugun *Logikaren zientzia (1812-16)* lanaren “Sarrera” atalean, ezer baino lehen, logikaren kontzeptu orokorra garatzeko saiakera egiten du Hegelek. Logika formaletik urrunduz, dialektikan oinarritzen den logika hartzen du pentsamenduaren funts gisa, logika dialektiko bezala ezaguna dena, alegia.

Logikaz aparteko esparru zientifikoetan metodoa eta objektua bananduta agertzen dira; objektutik beratik hasten dira zientzia horiek, pentsamenduaren lege eta erregelei dagozkien hausnarketarik gabe, horiek auresuposatuz. Aldiz, logikak ezin ditu hausnarketaren atzean dauden dinamikak onartuzat eman, horrelako auresuposizioak bere edukiaren parte direlako eta bera arduratzen baita horiek funtsatzeaz. Hontaz gain, logikaren azken emaitza *zientzia* kontzeptua litzateke, behin esposizio osoa burututa eskuratuko delarik haren gaineko ezagutza bere osotasunean. Izan ere, zientzia egiten deduzituko da haren kontzeptua, gauzen izatea ez baita definizio huts batera mugatzen; izatea prozesu bezala ulertu behar da, Hegelen ustetan. Honekin batera, logikaren objektua hautematen duen pentsamendua izango da.

Logika, beraz, pentsamenduaren zientzia dela adieraz daiteke; dena den, pentsamendu hau forma hutsera erreduzitu ohi da, zeinari materia gehituko litzaiokeen –ezagutza jakin bati dagokion edukia–. Horrela, badirudi logika ezagutzaren baldintza formalak irudikatzen soilik mugatzen dela eta, hortaz, formaren eta edukiaren arteko ustezko bereizketa bat emango litzateke. Hots, pentsamendua huts gisa hartzen da, eta honekiko era independentean existitzen dela auresuposatzen den ezagutzaren materia kanpoko elementu bezala gehituko litzaioke, hemendik benetako ezagutza eratuz.

Dena den, Hegelen arabera, hori ez da zuzena. Lehenik eta behin, logika ez da mugatzen pentsamenduaren arauak erakustera pentsatua izan dena kontuan izan gabe. Izan ere, pentsamenduaren arauak dira haren objektua, bertan aurkitzen du bere edukia. Hori dela eta,

logika soilik formaz arduratzen dela dioen aurreiritzia baztertu beharra dago, adierazi bezala, logikak badu-eta bere eduki propioa.

Bestalde, elkarrengandik bereizi ohi diren bi osagai horien arteko ordena hierarkiko bat existitzen dela aditzera ematen du filosofo alemanak. Lehendabizi, objektua egongo litzateke, ustez bere kabuz osoa dena; bigarrenik, pentsamendua, zeina materiaz osatu behar den eta hari moldatu behar zaion. Horrela, egia objektuaren eta pentsamenduaren arteko bat-etortzea litzateke.

Aurrekoaz gain, materia-forma bereizketak elementu horietako bakoitzak eremu propio bat osatzea dakarrela auresuposatzen da. Ezagutzaren eragiketan, hortaz, “pentsamendua, materia antzeman eta eratzen duenean, ez da bere baitatik kanpo irteten” (Hegel, 1812-16: 3)*; hots, edukia jaso eta hari moldatzeko ariketa pentsamenduan ematen den aldaketa bat besterik ez litzateke, norbere buruan ematen den prozesu psikologiko soilak. Horrela, ez litzateke ez subjektuan bertan ez objektuan aldaketa errealik emango. Hegelek, ordea, auresuposizio hori baztertzen du; haren arabera, benetako ezagutza dedukzioaren bitartez eskuratzen da, ez pentsamenduak eta materiak era egoki batean bat egiten dutenean. Hori dela eta, aipatu prejuizioaren aurka, ezagutzaren prozesu horretan subjektua kanpora irteten da, objekturantz, nolabait; kanpoan dagoen horrekin harremanetan sartzen da. Hortaz, haien buruen amaigabeko aldaketa batean murgiltzen dira bai subjektua bai objektua. Hartu-eman horretan, direnaren etenik gabeko negazioan, dihoaz ezagutza bera sortzen –beren buruak birsortzen doazen heinean–.

Horrenbestez, ikusi dugu nola auresuposatzen den edukiaren eta formaren arteko bereizketa bat, zeina, azken instantzian, ez litzatekeen subjektu-objektu dikotomiaren beste espresio bat besterik izango. Izan ere, badirudi mutur batean ezagutzeko ahalmena duen subjektua egongo litzatekeela, bere pentsamenduaren egitura edota kategoriekin, eta beste muturrean, ordea, objektua, subjektuarekiko independenteki existitzen den eta pentsamendua materiaz hornitzen duen kanpo errealitatea. Hegelen arabera, Descartes edota Kant bezalako pentsalari modernoekin bere gailurrera iritsi den ezagutzaren eta izatearen arteko banaketa kontzientziaren maila jakin bati dagokio, maila fenomenologikoari, alegia. Kontzientziak oraindik ez du bere buruaren gaineko kontzientzia eskuratu, ez da autokontzientzia bilakatu. Errealitatea osatzen duten determinazioak ezagutu edo deduzitzeko –autodedukziora iristeko–

kontzientzia arrazoimen hutsaren mailara heldu beharko litzateke. Bertan soilik izango da posible filosofia zientzia bihurtzea.

Kontzientzia fenomenologikoan, hortaz, oraindik abstrakzioan aurkitzen gara, ez dugu eskuratu gauzen zehaztasun osoa. Horretarako, filosofiaren historian zehar indarrean egon den aipatu bereizketa gainditu behar da, Ni-aren eta gauzaren arteko bat-egitearen eskutik. *Gogoaren fenomenologia* (1807) obran adierazten den bezala, lehenengo momentu batean, kontzientziak bere burua kontzientzia gisa aitortzen du eta, hortaz, objektua beregandik kanpo bilatzen du. Hots, bestea (“el ser otro”) izate edo une ezberdindu bezala agertzen da. Aldiz, bigarren une batean, kontzientzia ohartzen da ordura arte harengandik kanpo zegoen eta arrotza zitzaion objektu bezala kontsideratutako beste izatea bere burua besterik ez dela. Hau da, kontzientziak bere burua objektuan errekonozitzen du, ezagutza eta objektua identifikatzen direlarik. Subjektu-objektu eskema dualista, hortaz, ez da dialektikaren une jakin bat besterik izango, bi elementu horien bateratzearekin gaindituko dena. Hala ere, aipatu behar da gaindipen hori ez dela zentzu absolutuan emango; hau da, ezagutzak eta natura edo izateak bat egingo dute, baina batasun horretan aniztasuna mantenduko da, batasuna eta aniztasuna kontzeptuak ez dira-eta bateraezinak. Subjektuaren eta objektuaren arteko batasunarekin, bat eta, era berean, bi izango dira –batasunaren baitan desberdintasuna dago–.

Laburbilduz, Hegelen aburuz, nahitaezkoa izango da subjektuaren eta objektuaren arteko harremanari dagozkion aurreiritzi horien ezeztapena gauzatzea, filosofiaren eskutik ahalbidetuko dena.

Ondoren, logika “gutziz analitikoa den prozesu batean eta kontzeptu gabeko kalkulu batean” bihurtu dela dio Hegelek, zeinaren determinazioak aldaezin gisa kontsideratzen diren eta horien artean era estrinsekoan harremantzen diren (Hegel, 1812-16: 10-11)*. Hori dela eta izan da parekatua pentsamendu era hori matematikekin. Autoreak logika analitikoari egozten dion espiritu faltaren aurrean, logikak zientzia purua era dezan, beharrezkoa izango da metodo bat garatzea. Metodo hau, filosofoaren hitzetan, “barneko auto-mugimenduaren formari buruzko kontzientzia da” (Hegel, 1812-16: 11)*. Finean, zera esan nahi da: garapen zientifikoa lortzeko ezinbestekoa dela negatiboa eta positiboa bere baitan integratzen dituen proposizio logikoa onartzea. Kontraesana ezin da zentzu absolutuan ulertu; bere eduki

determinatuaren ezeztapena da, hau da, ezeztapena determinaturiko horren ezeztapena litzateke. Horrela, kontzeptu sistema eraiki ahal izateko, bera eta bere aurkakoaren arteko bat-etortze dialektikoan onarritzen den prozedura jarraitu behar da; izan ere, metodo horri men egiten ez dion edozein adierazpen ezingo da zientifiko gisa kontsideratu, gauzak aipatu prozesu dialektiko hori bera jarraitzen baitu.

Dena den, mahai gaineratzen den metodo hegeliarra ezin da errealitatea ezagutzeko (kanpotik) aplikatzen den metodo edo bide gisa ulertu; kontrara, gauza orok du bere garapenaren logika. Negatibitatean oinarritzen den dialektika, hortaz, gauzen baitan aukitzen da. Hau da, den guztia etengabe ari da bere burua ukatzen, eta gairidipenarekin batera, aurrekoa baztertu baino, bere baitan integraturik geratzen da, gairidituriko fase edo une bezala. Kontzeptuak bere baitan duen baliabide negatibo hori “egiazko elementu dialektikoa” dela aditzera ematen du Hegelek (Hegel, 1812-16: 13)*.

- BIBLIOGRAFIA:

HEGEL, G. W. F. (1812-16), *Logikaren zientzia*. *

HEGEL, G. W. F. (1807), *Gogoaren fenomenologia I*, Klasikoak, 2005, Bilbo.

GARAUDY, R. (1966), *El pensamiento de Hegel*, Seix Barral, 1974, Bartzelona.

*Ez dut euskarazko itzulpenaren erreferentziarik aurkitu; beraz, aipuak nahiz erreferentzia bibliografikoa zehazterakoan klasean erabili dugun testuan oinarritu naiz.